

Bioarabako talde bat ikertzen ari da ea gripearen txertoa hartzeak eraginik daukan bai SARS-CoV-2 birusaz kutsatzeko arriskuan, bai kutsatu osteko bilakaeran. Iaz Araban txertatzera deitu zituzten 64.000 herritarren datuak erabiltzen ari dira; txertatu zirenenak eta ez zirenenak.

Gripeararen txertoan laguntza bila

Jakes Goikoetxea

SARS-CoV-2 birusaz kutsatzeko arrisku ezberdina al dute gripeararen txertoa hartu dutenek eta ez dutenek? Koronabirusaz kutsatuz gero, ezberdina al da batzuen eta besteen eboluzio klinikoa? Birus ezberdinak dira gripeararena eta SARS-CoV-2 birusa, baina bat-bataren kontrako txertoak bestearen kontra eraginik izan dezakeen ikertzen hasi da Bioaraba osasun ikerketarako institutua.

Vital Fundazioak 312.000 euroko diru sail berezi bat sortu du, COVID-19ari buruzko ikerketak laguntzeko. Hamalau ikerketa babestuko ditu guztira, Bioarabaren bederatzia eta Euskal Herriko Unibertsitatearen bost. Proiektu horietako bat da gripeararen txertoan oinarritutakoa.

Sasoiko birusa bihurtu da gripeararena. SARS-CoV-2 birusa ez. Ez dago haren kontrako txertorik, eta ikusteko dago etorkizunean zer eboluzio izango duen: sasoiko birusa bihurtuko den, etenik gabe iraungo duen, desagertuko den...

Gripeararen kontrako txertetak ohikoak dira. Iaz bai, eta aurreten ere bai. Araban, iaz, 64.000 lagun deitu zituzten txertoa hartzera, arrisku talderen batekoak zirelako. Bioarabak horiek guztiak ikertuko ditu: gripeararen txertoa hartu zutenak eta hartu ez zutenak, ez baitziren guztiak txertatu.

Ikusiko dute ea koronabirusak kutsatu dituen eta, kutsatu baditu, zer-nolako eboluzio klinikoa izan duen ikertuko dute: ospitaleratu behar izan zituzten, egonaldiak zenbat iraun zuten, zainketa intentsiboan unitatean sartu zituzten, gaiztatu zenbaterainoko larritasuna zuen, hil ziren...



Faktore klinikoak hartu behar dira aintzat gripeararen txertoak arriskua gutxitzen duen edo ez esateko»

«Emaizta kontrajarriak izan dituzten ikerketak kaleratu dira hilabeteotan»

Naiara Parraza
Bioarabako ikertzailea

Koronabirusak gripeararen txertoa hartu zutenak eta hartu ez zutenak kutsatu zituenean edo ez jakingo dute aurrenean. Zenbat diren talde batekoak eta zenbat besteakoak. Azkar eta erraz samar lor ditzakete datu horiek. Bi taldeen artean alderik baldin badago, ordea, lan zailagoa eta luzeagoa da gripeararen txertoak alde horretan zer-nolako eragina izan dezakeen neurtzea eta interpretatzea.



Gripea. Herritar bati gripeararen kontrako txertoa jartzen, Zarautzen. GORKA RUBIO / FOKU

Nola jakin gripeararen txertoak zer eragin duen datu horietan, eraginik baldin badu? Naiara Parrazak azaldu duenez, «beste hainbat faktore kliniko hartu behar dira aintzat, koronabirusaz kutsatzea errazten dutenak». Faktore horien artean daude aurretik beste gaixotasun batzuk izatea, 65 urtetik gorakoa izatea, hipertentsioa edo obesitatea izatea... Bioarabako Metodologia eta Estatistika Unitateko arduraduna eta ikerketaren koordinatzailea da Parraza.

Kasuen jarraipena egiteko aintzat hartuko dituzte faktore horiek guztiak. «Kontuan hartu behar ditugu gero esan ahal izateko gripeararen txertoak arriskua gutxitzen duen edo ez; ez da bakarrik zenbakiak hartzea eta aztertzea», Parrazaren arabera.

Ikerketa epidemiologikoa egiteko, hainbat arlotako profesionalak bildu dira taldean: lehen arretako medikuak, ospitaleko espezialistak, epidemiologoak, osasun publikoan adituak, matematikariak... Ekainean sortu zen ikerketa egiteko asmoa, kezkatuta zeudelako udazkenean bat egingo zutela SARS-CoV-2 birusak eta gripeararen.

Ez daukate hipotesirik; ez daki-te gripeararen txertoak koronabirusaren eragina gutxitzen eta leuzten duen, gurutzatutako immunitaterik dagoen. Zergertatu den jakin nahi dute. Egin dira

gripeararen aurkako txertoaren eragina COVID-19 kasuetan neurtzeko beste ikerketa batzuk. «Emaizta kontrajarriak izan dituzten ikerketak kaleratu dira hilabeteotan», azaldu du Parrazak. Batzuek diote gripeararen txertoak babestu egiten duela; besteek, al-diz, arriskua eta hilkortasuna handitzen duela. «Horregatik, egokia iruditu zitzaigun benetako eragina ikertzea». «Badirudi», jarraitu du, «azken aldiari iristen ari diren ikerketek esaten dutela gripeararen txertoak babestu egiten duela».

Datuak indargune

Horretarako, ikerketaren koordinatzaileak nabarmendu du haien indarguneetako bat datuak direla: datu kopurua -ia 64.000 herritarrenak- eta datuen individualtasuna. «Orain arte argitaratu diren ikerketetan, serieak txikiagoak izan dira, eta datu agregatuak izan dituzte oinarriak, indibidualak izan beharrean». Alegia, orain artekoak taldeen edo multzoen datuetan oinarritu direla, ez pertsona bakoitzaren datuetan.

Osakidetzaren datuak erabili-ko dituzte, eta osasun zerbitzuekin elkarlan estuan ari dira. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila Bioarabako bazkideetako bat da, eta, jakina, interesatzen zaizkio ikerketaren emaitzak.

Osakidetzak informazio asko dauka, bai, baina halako ikerketa



batera egokitzeko korapilatsua. Izan ere, Osakidetza informazioa jasotzeko eta antolatzeko modu propio bat du, eta hortik abiatuta, Bioarabako ikerketa taldeak datu base bat sortu behar du. «Hori da lanik zailena», Parrazaren arabera.

Zergatik? «Osasun sistemako datuak gaixoak tratatzeko erabiltzen dira, eta egituratu gabeko datuak izan ohi dira, testu gisa idatzia», argitu du Parrazak. Edozein kontsultatan gertatzen da: gaixoa iristen da, bere arazoan be-

rri ematen dio medikuari eta medikuak txosten bat egiten du, «testua idatziz». Testua. «Datu horiek, testu gisa idatzita, ezin dira ustiatu, nolabait esateko», jarraitu du Parrazak. «Beraz, ikerketa honetarako informazio zehatza atera nahi badugu, egitura bat osatu behar dugu. Erremintak diseinatzen ari gara, geure neurri-ekin».

Asko zaindu nahi dute informazioaren zuzentasuna: «Esaterako, osasun sistemaren informazioaren barruan COVID-19 kasu

gisa etiketatzen ari garena bene-tan COVID-19 kasu bat izatea».

COVID-19ak eragin ezberdina izan du herri eta eskualde ezberdinetan. Bioarabako taldeak ikerketaren emaitzen banaketa geografikoa ere egingo du, lurraldetasunetik abiatuta, oinarritzko irizpide sozioekonomiko batzuk emateko. «Oso garrantzitsuak baitira edozein gaixotasun aztertze orduan», Parrazaren iritziz.

Ez dakite emaitzak noizko izango dituzten. Bizkorak izan nahi

Medikuen bizipenetatik arnas terapietara

+ Era guztietako ikerketak daude Vital Fundazioak lagundutako hamalau proiektuen artean. Bioarabako talde batek, esaterako, COVID-19ari aurre egiteko arnas terapiak garatuko ditu, biriketako simulagailu baten bidez. Beste batek, berriz, ospitaleetan lehen lerroan COVID-19ari aurre egiten aritu diren medikuen bizipenak bilduko ditu: ondorio emozionalak eta balizko gatazka etikoa. Bada pandemiak buru osasunean izan duen eragina ikertuko duenik ere: gaixotetan, haien harreman estuetan, osasun zerbitzu eta profesionalen, haur eta nerabeen talde batean...

EHUko ikerketen artean, batek hondakin urak ditu oinarri, besteak beste, koronabirusaren detekzio goiztiarrerako, eta beste batek konfinamenduaren ondorioak neurtuko ditu Arabako haurren elikadura ohituretan, pisuan eta D bitaminan.

dute, eta espero dute ikerketaren lehen zatia –koronabirusaren eragina neurtzea txertatu eta txertatu gabeetan–, «luze gabe» izango dutela. Bigarren zatia egiteko, kutsatuen bilakaera aztertze, denbora gehiago beharko dute. «Saiatuko gara ahal dugun azkarren egiten; ea gripearen kanpaina amaitu baino lehen lortzen dugun», dio itxaropentsu Parrazak.

Asmoa ez da, gainera, iazko gripearen txertaketa kanpaina bakarrik ikertzea. Iazko kanpaina

ikertzeko egingo duten lana aurtengoa aztertze ere baliatu nahi dute; uste baitute oso interesgarria izango dela aurtengo kanpainako datuak ere aztertzea, testuingurua erabat aldatu delako iazkoarekin alderatuta: COVID-19aren kontra hartutako prebentzio neurriek gripearen zabalkundea mugatzea espero da. Halagertatu da hego hemisferioko hainbat herrialdetan: gripe kasuak izugarri gutxitu dira.

Txertatzearen garrantzia

Bioarabako taldeak ez daki gripearen txertoak koronabirusaren eragina baldintzatzen duen ala ez. Gripearen txertoak, hori bai, osasun zentroetako eta ospitaleetako gainkarga arintzen lagundu dezake: zenbat eta pertsona gutxiago kutsatu gripeaz, orduan eta pertsona gutxiago artatu beharko dituzte gripegatik ospitaleetan, eta baliabide gehiago izango dituzte koronabirusari aurre egiteko. Gainera, bi gaitzen sintomatologia oso antzekoa da, eta horrek nahasketak eragin ditzake. «Beste patologia batzuk saihestuz gero, hobeto, sistemak gainezka egin ez dezan», ohartarazi du Parrazak.

Ikerketan, gripearen txertoaren eragina neurtzeaz gain, inkestak ere egingo dute: alde bategatik, herritarrek egungo egoeraz duten arrisku pertzepzioaren inguruan, eta bategatik, COVID-19aren kontrako txertoak izango lukeen harrerari buruz. «Gauza bat baita txertoa edukitzea, eta beste bat jendeak txertoa hartzea», Parrazaren iritziz. «Garrantzitsua da hori jakitea, gero txertatze estrategia eta plangintza egokia egiteko».